

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**250/2021 Foru Agindua, irailaren 23koa, zeinaren bidez Armiñongo udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 1 poligonoko 1163 lurzatian, dagoen telefonia mugikorreko deien banagunea legeztatzeko proiektuaren interes publikoa adierazten baita**

Telxius Torres España SLk eskaera egin dio Armiñongo Udalari, udalerrri horretako lurzoru urbanizaezinean, 1 poligonoko 1163 lurzatian, dagoen telefonia mugikorreko deien banagune bat legeztatzeko.

Armiñongo Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Telxius Torres España SL telekomunikazio azpiegituretako operadore globalak proiektu bat aurkeztu du, zeinean jasotzen baita Telefónica Móviles España-ren Armiñongo banagunea osatzen duten zenbait azpiegitura pasiboren eta telekomunikazioei loturiko beste baliabide batzuen titularrak dela. Telxius azpiegitura pasiboez eta telekomunikazioei loturiko beste baliabide batzuek jabetu da, baina ez du eskuratu telekomunikazio ekipoen titulartasuna; ekipu horiek herritarrei komunikazio mugikorren zerbitzuak emateko erregistratuta dauden operadoreen titulartasunekoak izaten jarraitzen dute. Proiektuaren xedea da Telxius Torres España-ren obra eta Telefónica Móviles-en jarduera legeztatzea, eskatzailearen jabetzako azpiegitura darabilen telekomunikazio zerbitzuen oinarri-estazio batean.

Oinarri-estazioak 30 metroko altuerako sareta-dorre bat dauka, eta telekomunikazio tresneria kokaturik dauden etxola prefabrikatu bat. Indarra artezteko tresneria, irrati ekipoa, antenak eta kableak izango ditu instalazioak, eta zati erradiatzailea dorrean egongo da. Beste operadore batzuekin partekatu ahal izateko diseinatu da, inguruetan honelako kokagune gehiago ez sortzeko asmoz.

Udaleko arkitektoak emandako txostenean, adierazten da dorrea kokatuta dagoen lurzatia "Lurzoru urbanizaezina 5 zona. Erabilera mugatuko nekazaritza zona" delakoan dagoela. Udal plangintzako arau subsidiarioetako 144. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zona horretan baimendutako erabilera eta jardueren artean daude onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak eta azpiegiturak, landa ingurunean kokatu behar direnak egiten dituzten jarduerak halakoak direlako ezen lur hartzaileari ezinbestean loturik egon behar baitira zientzia edo topografia arrazoiengatik edo antzeko beste edozeinengatik.

Espedientean jasota dago Aire Segurtasunaren Estatu Agentzia – AESAk zortasun aeronautikoen gaian hartutako 2020ko abenduaren 4ko Erabakia, telekomunikazio estazioa baimentzen duena, bai eta Aurrerapen Digitalerako Estatu Idazkaritzaren 2018ko azaroaren 20ko Ebazpena ere, proiektua onesten duena eta Telefónica Móviles España-ri baimena ematen diona Armiñonen dagoen estazioa instalatzeko, jabari publiko irrati-elektrikoaren erabilera pribatiborako.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran da goen lurzorian, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaziazinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogege egunetz jendurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Abuztuaren 2ko 218/2021 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta jendurrean jartzeko 20 eguneko epea hastea ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera (argitalpena abuztuaren 13an egin zen, 91 zenbakian). Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Telekomunikazioen maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorra aplikatu behar da, zeinaren 2. artikulua hau ezartzen baitu: "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira"; eta 3.c artikulua beste hau, legearen helburu eta printzipioei dagokienez: "Komunikazio elektronikoen sareak zabaltzea eta zerbitzuak ematea sustatzea, mutur batetik bestera konektibitate eta interoperabilitatea sustatuta, bai eta sarbidea ere, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan".

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan, proiektuan adierazten den bezala.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatuak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren jardunean, haren titularra ez dagoelako, eta Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Armiñongo udalerriko lurzoru urbanizaziazinean, 1 poligonoko 1163 lurzatian, ezarritako telefono mugikorreko deien banagunea legezatzeko Telxius Torres España SLk sus-tatutako proiektuaren interes publiko adieraztea, bat etorri Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hila-bete biko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa jarri ahalko zaio egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsio ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 23a

*Ingurumen eta Hirigintza Sailaren jarduneko foru diputatua. E. D*  
**M<sup>a</sup> PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**